

## HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2013/2014 ikasturtea

# JARDUERA AUTONOMOA: 2 urteko gelan


Egilea: Maitane Belasko Txertudi

Zuzendaria: Elena Herrán Izagirre

Leioan, 2014ko Ekainaren 10ean

© 2014, Maitane Belasko

ZUZENDARIAREN ONIRITZIA



EGILEAREN ONIRITZIA



## AURKIBIDEA

Sarrera .....	4
1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera .....	5
1.1. Nor da Emmi Pikler? .....	5
1.2. Zer da Pikler-Lóczy Institutua? .....	6
1.3. Jarduera autonomoaren balioa .....	7
2. Metodologia .....	11
3. Lanaren garapena .....	12
4. Emaitzak .....	14
4.1. Datu orokorrak .....	15
4.2. Garapen orokorra .....	15
4.3. Astearte-ostiral konparaketa .....	16
4.4. Jaiotza hilabeteen arabera (sei hilekoka) .....	17
4.5. Neska-mutilen arteko desberdintasuna .....	18
4.6. Ikerketaren 1. go, 3. eta 6. asteen arteko aldeak .....	19
5. Ondorioak .....	20
6. Erreferentzia bibliografikoak .....	22
ERANSKINAK .....	24
1. GO ERANSKINA: Garapen orokorraren arabeko balioak ehunekoetan .....	24
2. ERANSKINA: Astearte-Ostiral arabeko balioak ehunekoetan .....	25
3. ERANSKINA: Jaiotza hilabetearen arabeko balioak ehunekoetan .....	26
4. ERANSKINA: Neska-mutil garapenaren arabeko balioak ehunekoetan .....	27
5. ERANSKINA: Ikerketaren 1. go, 3. eta 6. asteetako garapenaren arabeko balioak ehunekoetan .....	28

## JARDUERA AUTONOMOIA:

### 2 urteko gelan

Maitane Belasko Txertudi

EHU/UPV

### Laburpena

Emmi-Pikler eta Pikler-Lóczy Institutuaren hezkuntza eredu arrakastatsua oinarritzat harturik, 2 urteko haurren jarduera autonomoaren bilakaera behatu da. Jarduera autonomoari lekua eskaintzen ez zitzaion ekintza batean lekua utziz, hezitzaileok esku hartze zuzena txikituz eta haurrei lekua eginez. Jantokira joateko atontze unean brusa jantzi, botoiak lotu eta adurretakoa janzteko izan duten gaitasuna behatu da. Azterturiko arlo guztietan haurrek izandako bilakaera positiboa eta sortu den lankidetzaren giroa ikusirik jarduera autonomoak fruituak eman dituela esan dezakegu. Hezitzaile eta helduon esku dago haurrak jarduera autonomora bidean lagundu eta berau garatzeko baldintza egokiak sortzea, lorpenak aitortzea, etengabeko feedback positiboan. Haurrek ezarritako helburu eta erritmo desberdinak onartuz.

**Hitz gakoak:** *Pikler-Lóczy pedagogia, jarduera autonomoa, hezitzaile, esku hartze zuzena, baldintza egokiak.*

### Resumen

Se ha estudiado el comportamiento autónomo de niños de dos años de edad, basándose en el exitoso método académico del Instituto Emmi-Pikler y Pikler-Loczy. Esto se ha llevado a cabo dando libertad a las zonas donde el comportamiento autónomo podría desarrollarse, reduciendo a la vez la participación de los educadores y dejando espacios libres para los niños. Hemos observado la capacidad de ponerse su blusa, abotonarse y atarse los cordones de los zapatos, en el momento de ir al comedor. Después de ver una evolución positiva y el ánimo de cooperación creado entre los niños en todas las áreas estudiadas, podemos deducir la importancia del aumento de la autonomía. Está en manos de los educadores y adultos generar condiciones apropiadas a los niños en su camino a un comportamiento autónomo, a reconocer sus logros y darles una retroalimentación positiva

continua. Siempre teniendo en cuenta los objetivos y ritmos diferentes que los niños puedan tener.

**Palabras clave:** *Pedagogía Pikler-Lóczy, comportamiento autónomo, educadores, intervención adulta directa, condiciones apropiadas.*

### **Abstract**

We have studied the autonomous behaviour of two year old children based on the successful academic method from the Emmi-Pikler and Pikler-Loczy Institute. This has been carried out by giving freedom to areas where autonomous behaviour could be developed, whereas reducing the involvement of the educators and leaving free spaces to children. We have observed the ability to put on their blouse, buttoning it and tying the shoelaces at the time of going to the canteen. After seeing a positive evolution and the cooperative mood created among children in all the studied areas, we can deduce the importance of the increase of the autonomy. It is in the hand of the educators and adults extend appropriate conditions to help children in their way to an autonomous behaviour, to recognize their achievements and give them continuous positive feedback. However, while always realizing the different goals and rhythms that children may have.

**Key words:** *Pikler-Lóczy method, autonomous behaviour, educators, direct intervention, appropriate conditions.*

### **Sarrera**

*“El respeto a la autonomía y a la dignidad de cada uno es un imperativo ético y no un favor que podemos o no concedernos unos a los otros”.* Paulo Freire

Hasiera batean, ikerketa lan honen helburua, gure hezkuntza sistema eta Pikler-Lóczy hezkuntza ereduaren arteko konparaketa bat egitea zen. Bilboko eskola publiko bateko 2 urteko gelan Practicum IIIa burutuko nuela jakinda. Baina bien arteko konparaketa bat egitea oso zaila litzateke, baldintzak, oso desberdinak bait dira. Gauzak honela, Pikler-Lóczy hezkuntza ereduaren lau printzipioetako batetara egin nuen salto, jarduera autonomora.

Jarduera autonomoaren garrantzia zein den ohartzeko ezinbestekoa da jaiotzen garen unetik bertatik autonomia garatzeko gaitasuna dugula

konturatzea. Helduen esku hartze zuzenik gabeko lorpenek ematen diguten gozamenaren bila. Lorpen bakoitza aurreko lorpenari lotzen zaio eta ez da garatzen hasiko aurrekoa ondo burututa egon arte, oinarri sendoa izan arte. Azken finean, etorkizunera begira, lorpen hauek izango dira autonomiaren zimendu. Jarduera autonomia garatu ezean, helduarekiko menpekotasun egoeran dagoen haurrari buruz ari gara hitz egiten, eta ondorioz, etorkizuneko helduari buruz.

Haurrei jarduera autonomia garatzeko askatasuna eskeinita duten bilakaera jarraitu eta aztertzea izan da azkenik ikerketaren helburua. 2 urteko haurren jarduera autonomoaren garapena behatzeko aukeraturiko momentua jantokira joateko atontze unea izan zen. Haurrei brusa janzteko, botoiak lotzeko edo eta adurretakoa janzteko orduan ez bait zitzaien jarduera autonomorako lekurik uzten. Beraz, haurrei autonomiarik uzten ez zitzaien jarduera batean autonomia eskeiniz, hauen bilakaera zein izan den aztertu da.

## **1. Esparru teoriko eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera.**

Ikerketa lan honetan autonomiaz ulertzen duguna ezin da Emmi Pikler eta Pikler-Lóczy Insitutua ezagutu gabe aditu. Izan ere, autonomia hitzak esanahi zabala har dezake.

### **1.1. Nor da Emmi Pikler?**

Emmi Pikler 1902. urtean jaio zen Vienan. Hautzaroa Budapesten igaro zuen baina Vienara itzuli zen medikuntza ikasketak burutzeko. Pediatrian espezializatu ondoren Vienako ospitale unibertsitarioan egin zituen praktikak, haurren traumatologian eta ortopedian formazio sendoa eskuratuz.

Ikasketak burutu ostean, Triestera joan zen eta han bere senarra izango zen György Pikler ezagutu zuen. Hau pedagogo aurrerakoia zen eta honen ideiak baliagarriak suertatu zitzaizkion bere ibilbide profesionalean.

Triesten, denbora asko pasa zuen hondartzan eta haurren portaerak eta beraiekin zeuden helduek hurrekiko zituzten harremanak behatzeko aukera

izan zuen. Behatutako portaeren artean honako hauek aurkitu zituen: gurasoek maitasunez beterik nola jarri arazten zuten haurra, nola zutitzen zuen edo nola eramaten zuen eskutik helduta. Baina trataera maitekor horren atzean, presa, mesfidantza, haurrek inizatiba eta ekiteko gaitasunekiko konfiantza falta ikusi zituen.

Bere lehenengo alabarekin praktikan jarri zituen alde aurretik buruan zituen hainbat ideia: garapena ez bizkortzea, erritmo naturala errespetatzea, haurren berezko inizatibekiko konfiantza izatea, mugimendu eta ekintza autonomia bultzatuz.

1946an Budapesteko Umezurtz-etxe baten zuzendaritza kargua eskuratu zuen. Hirugarren hilabeterako hezitzaile guztiak bota zituen ezarritako lan era berriak betetzen ez zituztelako. Hauen ordez, formazio profesional gabeko neska gazteak kontratatu zituen, baldintza bakarra jarriz, haurren hezkuntzan interesa izatea.

## **1.2. Zer da Pikler-Lóczy hezkuntza eredua?**

Emmi Piklerrek haurren jaiotza unetik bertatik mugimendu askearen aldeko apustua egiten du, helduen esku-hartzeak ahalik eta urrienak izanik. Hauek bi mailatan sailkatzen ditu alde batetik esku hartze zuzenak eta bestetik zeharkakoak.

Zuzeneko esku hartzeen baitan honako hauek kokatzen dira: pixoihala aldatzea, bainatzea, janztea eta erantztea, elikatzea eta lo kontuak.

Zeharkakoetan aldiz bi alderdi desberdintzen ditu. Batetik, jarduera autonomoaren eta haren baldintzen kanpotiko arreta. Eta bestetik, kudeaketa: materiala hornitu eta biltzea, informazioa partekatzea, etab.

Guzti hau aurrera eramateko eta ereduaren bi ardatz nagusiek, kalitatezko zaintzak eta jarduera autonomia eskaintzeko lau printzipio zuzentzaile hauetan egituratzen da (David eta Appel, 1986; Falk, 1997, 2008):

1. Jarduera autonomoaren balioa.
2. Harremanen afektibo pribilegiatu baten balioa eta instituzioan eman beharreko formaren garrantzia.

3. Garapen mailaren arabera, bere buruarekiko eta inguruarekiko kontzientzia hartzen joateko erraztearen beharrezana.
4. Osasun egoera fisiko onaren garrantzia.

Azkenik, Emmi Piklerrek proposatzen duen hezkuntza eredua zaintzak ahalik eta pertsonalizatuena, bizi-esparru egonkorrak, adin bakoitzaren beharrezanetara egokitutako inguruneak eta, mugimendu askatasun osoa sustatzeak osatzen dute (Herran, 2013).

### 1.3. Jarduera autonomoaren balioa

Ikerketa lan hau jarduera autonomoaren inguruan izango denez ezinbestean gehiago sakondu behar dugu printzipio honetan.

Elhuyar Hiztegian begiratu ezkerreko autonomiaren honako definizio hau irakur dezakegu:

*“iz. 1. Zerbaitek edo norbaitek, alor batean edo oro har, bere kabuz aritzeko duen askatasuna edo askatasun-maila”.*

Pikler ikuspegitik jarduera autonomoaren alorrean pixka bat sakonduz Judit Falk-ek honela dio (2009):

*“Lehen esperientziak haurra jaioberria dela abiatzen dira; izan ere autonomia-esperientziak dira haurrak bere kabuz eta helduen esku-hartze zuzenik gabe gozamen bila edo gauzak egiteko desio hutsez egindako jarduera guztiak. Haurrak berak abiatutako jarduera “autonomo” horretatik edaten du, hainbat lorpen erdiesteko alderdi psikomotor, afektibo eta kognitiboan. Lorpen autonomoen multzo hori, egokiro errespetatzen bada, helduaroko autonomiaren zimendua izango da” (Falk, 2009, 23 orr.).*

Judit Falken (2009) ustetan eta Pikler-Lóczy esperientzian oinarriturik, haurren autonomia bultzatu beharrean hobe genuke heldu eta hezitzaileok gure arreta honako puntu hauetan jarritz:

- Norberaren berezko gustuari eusten laguntzea.
- Haurra babestea, inhibititu ez dadin.
- Bere burua garatzeko baldintzak egokiak ematea.

Honela haurrari aukera ematen diogu lehenengo eta behin eraginkortasun-sentimendua eraikitze eta adimena garatzeko oinarriak eta bigarrenik heldu sortzaile eta arduratsua izateko gaitasuna eskaintzen diogu.

Haurrarentzat beharrezkoa da seguru sentitzea eta sentimendu honen oinarrian helduarekiko duen erlazio goxo, atsegin eta konfiantzazkoan oinarrituriko segurtasun afektiboa behar dute. Judit Falken arabera (2009) segurtasun-sentimendua eratzeko funtsezkoa da helduok babesa ematea. Babes honen nondik norakoak hauek dira:

- Haurra zailtasunen baten aurrean dagoenean seinaleak bidaltzen dizkio helduari, honi jakitera emanaz. Helduak egoeraz jabetu dela adieraziko dio, nahiz eta ikuseremutik kanpo egon.
- Noizean behin komeni da helduak haurren lorpenak ahoz goratzea, emaitzaz jabetzen lagunduko diote. Baina aparteko lorpenik egin ez badu ere, goraipatua eta maite dutela sentitu behar du.
- Haurraren erritmoa errespetatu behar da. Ez da jarri behar oraindik menperatzen ez duen jarrera batean. Ez zaio bultzatu behar bere gaitasunetatik haratago dagoen ezer egitera.
- Gaitasunak garatzeko baldintza aproposak finkatu behar dizkio helduak eta egoera arriskutsuetatik babestu.

Judit Falken ildotik Maria Vinczek (2013) zehazten du, haurraren lehenengo aste eta hilabeteetako zaintzak esperientzia erabakiorrak dira pertsonalitatea garatzeko. Haurraren pertsonalitate osasuntsuaren garapenerako hitz eta zaintza atseginak ez dira nahikoa. Haurrak helduaren hitzak berari zuzentzen



zaizkiola sentitu behar du eta honek erantzun bat espero duela bai begiekin, hitzekin, eskuekin, etab.

Era honetan haurrak bere seinaleak hatzeman eta ulertu ditugula sentituko du, bere beharrianak serio hartzen direla, eta bere erantzunen bitartez eragin dezakeela. Akzio-erreakzio jarraiko atmosfera sortzen da, etengabeko feedback-a bermatuz. Helduak haurra pertsonatzat hartzen du eta ez objektu soil baten moduan. Haurra helduarekin kooperatzen hasten da bere plazerrak eraginda (Vincze, 2013).

Obedientzia eta kooperazioa ez nahasteko kontu handiz ibili behar da. Obeditzen duen haur batek badaki helduak zer espero duten berarengandik eta bere jarduera honen ondorioa litzateke beti ere. Kooperatzen duen haur bat, ordea, bere plazerrak mugitzen du eta plazer honen arabera jardungo du lankidetzan ere.

Askoren ustearen kontra, kooperazioak ez darama denbora aurreztera, ez gaitzen erratu. Kooperazioa bultzatzerakoan gure helburua ez da denbora aurreztea, kooperazioa sustatzerakoan denbora aurreztea ez bait da posible. Kooperatzen duen haurraren zaintzak haur pasibo eta esanekoenak baino denbora gehiago darama (Vincze, 2013), kontuan hartuz, haurraren erantzuna espero dugula eta haurrek eskaerekiko duten erantzuna burutzeko aldeztatik ulertu behar dute eta horretarako denbora behar da.

Etaparen bakoitzaren hastapenean saiakerak eta hutsegiteak daude, ikaste prozesuan ezinbesteko osagaiak. Baina behin mugimendua barnerratu ezkerko koordinazioaren, mugimendu-ekonomia eta oreka nabarmen hobetuko dira. Haurra pozik dago, eraginkorra da hasitakoa bukatuz (Falk, 2009).

Lorpen bakoitza aurreko lorpenari lotzen zaio, eta ez da garatzen hasten harik eta aurrekoa ondo burututa egon arte, hau da, oinarri sendoa bilakatu arte (Falk, 2009a).

Haurraren bigarren urtean lankidetzaren eraldatu egiten da (Falk, 2009b). Haurra autonomia bihurtzen da bere gorputzaren premiak asetzeko baldintza hauek bete ezker:

- Helduaren-lasaitasuna eta onarpenaren aurrean.
- Autonomiaz jardutera behartuta sentitzen ez bada.
- Zaintza goxo, atsegin eta arretatsuaz gozatzen bada.

Autonomia hau ez bada axolagabetasunarekin eta zabarkeriarekin, eskaera goiztiartasunarekin edo *“laisse faire”* (egiten utzi) jarrerarekin nahasi behar, autonomia bidean lehen pausu hauek ez dira zailak izango (Falk, 2009b).

Apurka-apurka jarduera partekatua aldatzen joango da. Haurra aktore nagusi bihurtuko da eta helduak partaidetza txikiagoa izango du. Hala ere lau urterekin ere haurrak noizbehinka helduaren presentzia eta parte hartzea behar ditu, honen pazientzia eta adorea bezala. Helduak noiz eta nola parte hartu erabaki behar du haurrak ez dezan porrot egin duenik sentitu eta abailduta gera ez dadin.

Bukatzeko azpimarratu autonomia faltsuaren honako tranpa hauek (Falk, 2009b):

- Baldintzatzea. Ez da lankidetzarekin nahastu behar, haurra itxuraz helduarekin lankidetzan dabilen arren koreografia zehatz bat jarraitzen dabil. Berarengandik espero dutena ematen ohituta dago, eta honen arabera dihardu. Mugimendu jakin batzuk barneratu ditu heldua laguntzarren, baina ez da gai egoera berrietara moldatzeko.
- Eskakizunen goiztiartasuna. Haurren heldutasun afektiboa eta soziala gainditzan duen autonomia eskatzen bazaio haurrak helduak ez duela lagundu nahi pentsatuko du eta honela bere izatasun osoa errefusatzen duela.
- *“Laisse faire”* (egiten utzi) jarrera. Haurraren utzikeria-sentimendua sortzen du, haurrak ez du pentsatzen helduak jarrera horren bidez konfiantza eta ulermena adierazten dionik, ahulezia eta ezintasuna baizik. *“Egiten utzi”* jarrera ezin daiteke denbora luzean mantendu, uneraren batean helduak egoeraren kontrola berreskuratu beharko bait du.

Beraz, gogoan izan autonomia ez dela berez helburua. Ez du baliorik izango haurrak ez badu bere kabuz eginez gozatzen eta ez badu independentzia hori muga jakin batzuen barruan balia dezakeen ondasun preziatutzat hartzen.

Ez dago autonomiaren ikaskuntzarik, ez da haurra autonomo bihurtzen, autonomia garatzeko bidean lagundu egin behar zaio.

## 2. Metodologia

Lan hau aurrera eramateko Pikler-Lóczy Institutuan erabilitako metodologia hartu da oinarritzat.

Bertan haurren garapenaren, jarreraren, gustuen, emozioen inguruko informazio bilketa behaketan oinarritzen dira. Anna Tardos (1998), psikologo eta Pikler-Lóczy Institutuko zuzendari ohiak behaketaren urrezko arau gisa honako hauek aipatzen ditu:

- *“Aldizka burutu behar dira behaketak haurrak bere ingurunearekin eta bakarrekintzan burutzen dituen jardueren xehetasun txikienaren irudi zehatza izateko. Noizbehinkako behaketek, ausaz egindakoek errakuntzara eraman gaitzake eta. Aldizka egindako behaketek barnerago ikusten lagunduko gaituzte.*
- *Burututako behaketak erabili eta aztertzeko oharrak hartu behar dira. Era honetan behaketa desberdinak alderatzeko aukera emango digu, baita, taldearen edo haurraren bizitzan aldaketaren bat balego ere berau hautemateko.*
- *Beharrezkoa da behaketak zehatzak eta gertaerekin bat etortzea. Haurrek egin eta esaten dutena idatzi behar da oharretan, ez dira gure hautemate eta haurraren edo haurren jarreraren analisi orokorrarekin ordezkatu behar”.*

Oharrak ekintza gertatu bezain azkar hartu behar dira, ahalik eta arinen, denbora luzez utzi ezkeru gure burmuinean eraldatzeko arriskua dago. Kontuan izan behar dugu hauek berrirakurtzeko orduan gertaeren xehetasun txikienetik hasita eszena berreraikitze gai izan behar garela, filma bat bailitzan (Tardos, 1998).

Pikler-Lóczy behaketa mota bi bereizten dituzte, gaikakoa eta indibiduala. Gure kasuan gaikakoa erabiliko dugu, haur bakoitzaren garapen maila zein den eta behaketa denboran zehar ia aurrerapauso edo atzerapausorik egon den zehazteko.

Tardosen (1998) esanetan gaikako behaketak emaitza onak emango ditu baldin eta galdera zehatz batzuen erantzun bila bagabiltza. Galdera hauek ondo formulatuak eta behaketetan oinarritu behar dira.

Hiru datu mota bilduko dira. Lehenik taula baten bidez, taula honetan galdera zehatz batzuk proposatuko dira, erantzunak ahalik eta itxienak izan daitezten aurrerago behaketa desberdinak ahalik eta zuzenen alderatzeko. Informazio hau biltzeko erarik sinpleena galdera zehatzak planteatzen dituen garapen taulak erabili eta betetzea da. Baldintza bakarra hezitzailea galdera hauek erantzuteko gai izan behar da hurrengan jarrera jakin bat eragin gabe (Tardos, 1998).

Bigarrenik oharrak, interesgarriak direnak baina taulak barneratzen ez dituenak. Eguneroko gisa funtzionatzen dute eta bergogoratzeko oso erabilgarriak dira.

Azkenik, gurasoei baimena eskatu ondoren, astean birritan bideo kameraz grabatzeko aukera izan dugu. Honek behaketa inongo kutsadurarik gabe behin eta berriro errepikatzeko aukera eman digu. Lehenengoan ikusi ez diren xehetasunak bigarrenen eta hirugarren begiradetan ikusteko aukera emanaz.

Beraz behaketa hiru erataria jasota geratuko da: taularen bidez, oharren bidez eta bideo bidez.

### **3. Lanaren garapena**

Behaketa aurrera eramateko Practicum III.a egin dudan eskola aukeratu dut, bertan 2 urteko gelan egoteko aukera izan bait dut eta 2 urteko haurren egunerokoa bertatik bertara zuzenean ikusi. Eskola Publiko honetan proiektuetan oinarritutako metodologia erabiltzen dute Haur Hezkuntzan. Practicum denak eskola berean eta tutore beraren gidaritzapean egin ditudanez, konfiantzazko harremana sortu dugu. Tutoreari nire asmoen berri eman nion, haurren autonomia maila eta autonomia honen garapena 2 urteko haurrengan behatu nahi nuela jantzi-erantzi prozesuan, bere oniritzia jaso eta martxan jarri nuen behaketa.

Aipatu beharra daukat, Practicum III.a hasi nuenean eta lehen egunetan nire burua bai fisiko zein psikikoki kokatzen nabilela. Jantokira joateko atontze momentua guztiz ezberdina zela, tutore edo hezitzaileak janzten zituen haurrak, hau da, haurrak korroan eserita daudela izenez banan-bana deitu eta tutore edo hezitzaileak janzten zuen haurra, brusa, botoiak lotu zein adurretakoa. Apurka apurka gelako zereginetan parte hartu ahala atontze momentua nire gain hartzen hasi nintzen eta hurrei beraien kabuz janzteko aukera ematen saiatu, edo gutxienez ahalegina egiteko aukera.

Laginak 6 astetan zehar bildu dira, eguerdian jantokira joateko atontzeko unean brusa, botoiak lotu eta adurretakoa jantzi bitartean. Saio bakoitza 10-15 minututakoa izan da gutxi gora behera. Korroan eserita kutxatik brusa atera eta haurrak banan banan deitzen joan naiz. Haurrak ez dira hurrenkerak jakin batean deitu, zoriz brusak kutxatik irtetzen diren heinean deitu ditut haurrak eta hauek hurbildu ahala brusa lurrean jarri diet (hasiera batean, brusak eskura ematen hasi nintzen baina hurrek beraien eskatzen zuten brusa lurrean jartzeko) .

Behaketak iraun duen 6 aste hauetan zehar haur batzuk gaixorik egon dira, beste batzuk normalean jantokian bazkaltzen geratu arren etxera joan dira bazkaltzera.

Kontuan hartu behar da, behaketa denboran zehar aste santua izan dela, hurrek bi aste eman dituzte eskolara etorri gabe eta tartean haurren garapenak aurrera darraiela, hau batez ere esfinterraren kontrolean nabaritu dugu.

Bildutako datuei trataera kualitatiboa eman zaie, ikerketa hau burutzeko erabilitako plangintza edo egitasmoan ez dira prozedura estatistikoak erabili. Ikerketa eta ikertzailearen interesek agindu dutelako eta prozedura dinamikoa eta malgua izan delako. Gainera, partaideen rolen definizioak izaera progresibo (ikerketan zehar) eta elkarreraginezkoa (partaide/ak eta ikertzaileak) du.

Kasu honetan datuak biltzeko erabilitako estrategia behaketa partehartzailea izan da. Behaketa aktiboa (helburu finkatuekin), zuzena (lekuan eginikoa) eta partehartzailea (behatzailea jardueraren parte izanik) izan da. Erabilitako erregistro teknikak grabaketak, taulak eta oharrak izan dira. Metodologia honek abantaila bezala elkarreraginak eta dinamika antzemateko eta

ulertzeko egokia izatea, egoeren konplexutasuna begi-bistan jartzeko baliagarria izatea eta zuzeneko informazioa jasotzea ditu. Hala ere eragozpen nagusia subjektibotasuna arriskuan jar dezakeela da.

Behaketaren gaia eta helburua finkatutakoan taula bat osatzeari ekin nion. Taula honek galdera zehatz batzuk planteatzen ditu. Beraz, egunero taula erantzun eta oharrak hartzeari ekin nion. Honez gain lehen metodologia atalean aipatu bezala astearte eta ostiraletan bideo kameraz grabatzeko aukera izan dut (astean bi egunetan, bestela haurren arreta desbideratzeko arriskua ikusi nuen). Egun hauek aukeratu izana ez da zorizkoa. Aste hasiera eta bukaera grabatu nahi nituen ia ezberdintasunik nabari ote zen. Haurrak asteburutik energiaz beterik datoz eskolara (astelehenetan haur batzuek huts egiten zutelako aukeratu nuen asteartea) eta ostiraletan aste osoko nekea nabari delako. Ia faktore honek nolabait baldintzaten ote zituen.

Datuen bilketa (taula eta oharrak) haurrak atondu eta segidan egin da, dena den egun batzuetan ezinezkoa izan zait denbora gainera etorri bait zaigu, eta jantokira berandu jaitsi. Kasu hauetan jantokitik irtendakoan bete ditut taulak.

Bideo kameraz grabatzeko aukera izan dudana egunetan, ez ditut oharrak jarraian hartu, baina beti ere egun beraren barruan eraman dut bideoz grabatutakoa taulara.

Behaketa aurrera joan ahala hasiera batean planteatutako galdera denak erantzutea erreala ez dela konturatu nintzen eta batzuk kentzea erabaki nuen. Alde batetik egiaztatze edo ezeztatze aukerarik ez zelako egon edo zentzua galtzen joan zirelako eta behaketaren kalitatea eta nire arreta galtzeko baino ez zutelako balioko.

## **4. Emaitzak**

### **4.1. Datu orokorrak**

Bilboko D ereduko Eskola Publiko bateko 2 urteko gelan egin dira behaketak. Ikerketa honetan 10 haur izan dira kontuan (6 mutil eta 4 neska). Gelan guztira 17 haur izan arren, 4 etxera doaz bazkaltzera eta beste 3k ez dute brusik, adurretakoa soilik.

Datu hauetan ez dira kontuan hartu gaixorik egon diren haurrak, eskolara etorri direnak baizik.


Lehenik eta behin, lan honetan haurren autonomia eta garapen maila behatu nahi dela kontuan izanik, oso datu interesgarria da haurron jaiotza hilabetea zein den jakitea. Taula honetan haurren jaiotza hilabetea hiruhilekoetan banatuta ikus daiteke:

Hilabetea	Jaiotako haur kopurua	Neska	Mutil
1.go hiruhilekoa	3	1	2
2. hiruhilekoa	1	0	1
3. hiruhilekoa	3	2	1
4. hiruhilekoa	3	1	2

Taula 1: jaiotza hiruhilekoaren arabeko banaketa

### 4.2. Garapen orokorra

Ondorengo grafikoan, hurrek 6 astetan zehar izandako garapena beha dezakegu. Ekintzak burutzeko gai izan ziren haur proportzioaren arabera (grafikoari dagokion balio taularen kontsulta egiteko ikus 1.go eranskina).



Grafikoa 1: ikerketaren garapen orokorra

Grafikoan ikus daitekeenez, hasiera-hasieratik bakarrik janztera animatu ziren haurren ehunekoak altua izan zen, %88,88a, ikerketaren bigarren astean

bilakaera negatibo bat ikus dezakegu, %80raino jaitsiz, baina hemendik aurrera haur denak, %100a, animatu ziren bakarrik janztera. Bestalde, botoiak lotzeko laguntza eskatzen zuten haurren kopuruak behera egin zuen, %66,66ko balorean kokatuz ikerketa hasieran eta %50era jaitsiz amaieran.


Bilakaera positiboa izan da botoiak lotzen animatzen ziren haurren artean, ikerketa hasi zenean %33,33 eta bukaeran %90a. Halere, garapen honek hainbat gora-behera izan ditu ikerketan zehar.

Bestalde, botoiak lotzeko gaitasunari erreparatu ezker bilakaera positiboa izan arren ez du gorakada handia izan, hasieran %33,33a eta bukaeran %40a.

Bukatzeko, adurretakoa janztera animatu direnen bilakaerak nabarmen egin du gora eta ia haur guztiak animatu dira berau janztera behaketako azken astean, hasierako %33,33tik bukaerako %90eraino.

### 4.3. Astearte-ostiral konparaketa

Hurrengo grafikoan, asteko egunen arabera (astearte eta ostiral) garapena ikus daiteke ehunekoetan (grafikoari dagokion balio taularen kontsulta egiteko ikus 2. eranskina).



Grafikoa 2: asteko egunaren arabera garapena




Asteko bigarren eguna (asteartea), astelehenetan haur askok huts egiten bait dute eta azkena (ostirala) konparatu nahi izan ditut, bi egun hauen arteko aldea nabaria ote den jakiteko.

Datuei begiratu ezkerre, lehenengo (bakarrik janzten animatzen da?) eta laugarren (gai da botoiak lotzeko?) ekintzetan asteko egunak ez du eraginik.

Gainontzekoetan, oso nabaria ez bada ere badu bere eragina. Botoiak lotzeko laguntza eskatzen dutenen artean gora egiten du balioak, asteartean duen %62,11tik ostiralean duen %67,11ra, aurkako bidea hartzen du ordea botoiak lotzera animatzen direnen kopuruak, %87,05tik %78,88ra jaitsiz. Azkenik adurretakoa beraien kabuz jaztera animatzen direnen artean ere behera egiten du asteartetik (%84,05tik) ostiralera (%72,44ra).

#### 4.4. Jaiotza hilabetearen arabera (seihilekoka)

Beheko grafikoa egiterakoan, seihileko bakoitzeko haurren datuen batz bestekoa egin da ikerketak iraun duen denboran zehar (grafikoari dagokion balio taularen kontsulta egiteko ikus 3. eranskina).



Grafikoa 3: jaiotza seihilekoaren araberrako garapena

Bakarrik janztera animatu diren haurren artean 1. go seihilekoen artean %100 izan da, 2. seihilekoan, ordea, %95,76a, kasu honetan tartea oso txikia da.

Botoiak lotzeko laguntza eskatzen duten hurren artean alde handia nabari da 1.go seihilekoan edo 2. seihilekoan jaiotako hurren artean, lehenengoen artean %50,32ak eskatzen du laguntza eta bigarrenen artean %71,92ak.


Datu deigarriena, botoiak lotzen animatzen diren haur taldean dago, 1.go seihilekoen %77,56a animatzen delarik eta 2. Seihilekoen %85,38a.

Botoiak jartzeko gaitasuna 1.go seihilekokoek garatuago dute %51,60ak lortzen dute, 2. Seihilekokoek artean %30,51ak.

Azkenik, adurretakoa beraien kabuz janzteko gai direnen artean %86,53a lehenengo taldekoa da eta %76,41a bigarrenekoa.

#### 4.5. Neska-mutilen arteko desberdintasuna

Ondorengo grafikoan neska-mutilen arteko desberdintasunak ikus ditzakegu batzbesteko balioetan (grafikoari dagokion balio taularen kontsulta egiteko ikus 4. eranskina).




Grafikoa 4: neska eta mutilen arteko garapena

Neskek mutilek baino gaitasun handiagoa erakutsi dute ekintza denetan. Bakarrik janztera animatu diren neskek %100a izan diren bitartean mutilen %72,93a animatu da. Botoiak lotzeko laguntza nesken %55ak eta mutilen %40,13ak eskatu du. Botoiak lotzen animatu diren artean nesken artean ia denak animatu dira, %95a, mutiletan ordea %69,33a baino ez. Botoiak

lotzeko gaitasunari dagokionez nesken %52ak eta mutilen %38ak lortu dute. Bukatzeko adurretakoa beraien kabuz lotzea lortu dutenen artean nesken %83a eta mutilen %59,6a izan da.

#### 4.6. Ikerketaren 1.go, 3. eta 6. asteen arteko aldeak

Ondorengo grafikoan ikerketaren 1.go, 3. eta 6. asteetan lortutako balioen batzbestekoa ikus daiteke ehunekoetan (grafikoari dagokion balio taularen kontsulta egiteko ikus 5. eranskina).



Grafikoa 5: ikerketaren 1.go, 3. eta 6. asteen arteko garapena

Behaketaren lehenengo, erdiko eta azken asteen garapena ikus daiteke goiko grafikoan. Grafikoan ikus dezakegun bezala, behaketa hasi zen unetik bukaera arte garapen positiboa egon da alor guztietan, botoiak lotzeko laguntzan izan ezik hau beste ekintzekiko elkar baztertzeila delako.

Bakarrrik janztera animatu diren haurren artean joera goranzkoa izan da, 1.go asteko %88,88tik, 3. asteko %97,5etik, 6. asteko %100raino. Botoiak lotzeko laguntza eskatzen zuten haurrean bilakaeran egon dira gora behera gehien, 1.go astean %62,75ak eskatzen zuen laguntza, 2. astean %75ak eta 6. astean berriz, %52,22ak. Botoiak lotzen animatu diren haurren bilakaera oso positiboa izan da, 1.go astean %44,44a baino ez zen animatzen, 3. astean

%79,72a eta 6. asterako %90a ziren botoiak lotzeko ahalegina egiten zuten haurrak. Botoiak lotzeko gaitasunean bilakaera positiboa izan da baina alde txikia nabari da 1.go asteko %33,33tik, 3. asteko %33,38ra, 6. astean berriz %41,77ra igo da balioa.

Azkenik, adurretakoa beraien kabuz lotzeko gai izan diren haurrak, 1.go astean %48,14a, 3. astean, %68,05a eta 6. astean %79,55a izan dira.

## 5. Ondorioak

Ikerketa txiki honetan argi ikus daiteke autonomia bidean izandako bilakaera positiboa izan dela. Hurrei autonomia garatzeko bidean lagundu eta baldintza egokiak eskeini ezkerro, emandako aukerak hartu eta baliatu egingo dituzte. Beraiek ezarritako helburuak norbere kabuz eskuratu eta lorpenak gozatuz.

Goian esan bezala helduon esku dago hurrari jarduera autonomoan aritzeko baldintza egokiak eskaintzea. Dena den, badaude gure esku ez dauden baina nahi eta nahi ez eragingo duten alderdiak, beste batzuen artean haurren heldutasuna (hurraren jaiotza hilabeteari lotua) eta generoa. Hezitzaileok garapen mantsoagoa duten haurrak onartu eta hauen erritmoa errespetatzea ezinbestekoa da, eskakizunak goiztiartu gabe. Haurrak dagokion heldutasun mailaren arabeko helburuak lor ditzan.

Pertsonekin lanean dihardugun heinean xehetasun txikiena ere zaindu behar da. Begirada, ahotsaren tonua, gorputz kontaktuaren gozotasuna, azken finean gure jarrera. Ez da gauza bera botoiak lotzeko laguntza eske datorren hurrari “bai, lagunduko zaitut” edo “bai, lagunduko nauzu” erantzutea eta hurrari aurpegia nola aldatzen zaion ikustea, ezin bait dugu ahaztu aktore nagusia haurrak izan behar duela.

Hezitzaile eta helduon jarrerak berebiziko garrantzia du. Alde batetik haurren gaitasunengan konfidantza izan eta pertsona aktibo bezala ikusi, ulertu eta tratatuz. Askotan hezitzaile eta helduok bait gara konfidantza izan ez eta autonomiari dagokionez mugak jartzen dizkiengunak. Eta bestetik jarrera eraikitzailea, hurrek etengabe jarduera autonomoan gustura ekin dezaten beharrezko egiturak eraikiz.

Ikerketan zehar argi ikus daiteke hurrei aktore nagusi izateko aukera eman zaien heinean, hau da, gure esku-hartze zuzena txikitu dugun heinean, jarduera autonomoak gora egin duela.

Jantokira joateko atontze momentuko giroa zeharo aldatu da hurrei jarduera autonomoan aritzeko aukera eman eta protagonista bihurtu diren momentutik. Jokoan sartu dira kooperazioa, imitazioa, lorpenek emandako poztasuna eta aitortza.

Gogora ekarri, Pikler-Lóczy hezkuntza ereduaren lau printzipioetariko baten aldarria errepikatzen ari garela behin eta berriz, jarduera autonomoarena.

Argi dago gure hezkuntza sistema eta Pikler-Lóczy ereduaren arteko aldeak izugarriak direla. Baldintza material zein humanoetatik hasita eskola beraren antolaketa espazialera, zerrenda amaigabea litzateke.

Beraz, hau da gure buruei egin beharreko galdera, egun dugun hezkuntza sistema zein den kontuan hartuta eta barnebiltzen dituen alderdi guztiekin. Nola hurbil gaitzke 60 urtetik gorako esperientzia eta emaitza arrakastatsuak erakutsi dituen hezkuntza eredu honetara?

Erronka honi lotzea hezitzaileen eskuetan dago. Hezitzaileok eman behar diogu balio erantsia gure jardunari, azkenean berezitasuna xehetasun txikietan aurkitzen da. Eguneroko lana eta ahoz-ahokoaren bidez Pikler-Lóczy eredu ahalik eta eremu gehienetara zabalduz.

## 5. Erreferentzia bibliografikoak

David, M. eta Appel, G. (1986). *La educación del niño de 0 a 3 años: experiencia del Instituto Lóczy*. Madril: Narcea.

Eross, M. (1975) Initiative, indépendance, volonté. Comment être attentif aux initiatives de l'enfant, dès son plus jeune âge, pour lui permettre de développer sa conscience de soi. *Le Coq Héron*, 53, 34-35.

Falk, J. (1986). Lóczy y su historia. *La Hamaca*, 8, 4-15.

Falk, J. (2001). Desarrollo lento o diferente. *Infancia*, 70, 4-10.

Falk, J. (2008). Cuidado personal y prevención. En Falk (ed.), *Lóczy, educación infantil (11-20)*. Barcelona: Octaedro.

Falk, J. (2009). Los fundamentos de una verdadera autonomía en el niño pequeño. *Infancia*, 116, 22-31.

Febrer, I. eta Jansà, E. (2011). Empieza la escuela infantil, un proceso de familiarización. *Infancia*, 129, 10-16.

Freire, P. (1999) Autonomiaren Pedagogia. Hezkuntzan jarduteko beharrezko jakiteak. *Ikastaria*, 10, 9-71.

Herran, E. (2013). La Educación Pikler-Lóczy: Cuando educar empieza por cuidar. *RELAdEI (Revista Latinoamericana de Educacion Infantil)*, 2 (3), 37-56.

Hevesi, K. (1980). La participación del pequeño en la atención personal. *Infancia*, 20, 14-18.

Kálló, E. eta Mózes, E. (2013). *Juego, acción, pensamiento. El primer año*. Budapest: Pikler Institutua.

Pikler, E. (1979). Importancia del movimiento en el desarrollo de la personalidad. Iniciativa-competencia. *La Hamaca*, 9, 31-42.

Pikler, E. (1985). *Moverse en libertad*. Madril: Narcea.

Emmi Pikler Institutuko taldea (1972). Guide pour la rédaction du journal tenu par les nurses. Questions servant de guide à la rédaction du journal mensuel de chaque enfant, par son auxiliaire de référence. *Association Pikler-Lóczy France*, 29.

Tardos, A. eta Szanto-Feder, A. (2000). ¿Qué es la autonomía desde la primera edad? *Infancia*, 62. 5-11.

Tardos, A. eta Vasseur-Paumelle, A. (2007). Regles i límits a la llar d'infants. *Infancia*. 156, 16-21.

Vincze, M. (2013). Sobre la cooperación. Vestir sobre el cambiador, vestidor, cojín. En J. Falk (Ed.), *Bañando al bebé. El arte del cuidado* (17-35). Budapest: Hungriako Pikle-Lóczy Elkartea.

Tardos, A. (1998). El rol de la observación en el trabajo educativo. *La Hamaca*, 9, 73-80.

## ERANSKINAK

### 1. GO ERANSKINA: Garapen orokorraren arabera balioak ehunekoetan.

	Bakarrik jantzen animatzen da?	Botoiak lotzeko laguntza eskatzen du?	Botoiak lotzen animatzen da?	Gai da botoiak lotzeko?	Adurretakoa bere kabuz jantzeko gai da?
14/III/19	%88,88	%66,66	%33,33	%33,33	%33,33
14/III/20	%88,88	%55,55	%44,44	%33,33	%44,44
14/III/21	%88,88	%66,66	%55,55	%33,33	%66,66
14/III/24	%80	%80	%80	%30	%80
14/III/25	%87,5	%75	%87,5	%25	%62,5
14/III/26	%100	%77,77	%66,66	%33,33	%66,66
14/III/27	%100	%77,77	%66,66	%33,33	%66,66
14/III/28	%100	%88,88	%88,88	%33,33	%55,55
14/III/31	%100	%55,55	%88,88	%44,44	%88,88
14/IV/01	%100	%55,55	%77,77	%44,44	%77,77
14/IV/02	%100	%55,55	%100	%44,44	%88,88
14/IV/03	%100	%55,55	%100	%44,44	%88,88
14/IV/04	%100	%50	%70	%40	%60
14/IV/07	%100	%50	%90	%40	%80
14/IV/08	%100	%50	%90	%40	%80
14/IV/09	%100	%50	%90	%40	%80
14/IV/10	%100	%50	%90	%40	%80
14/IV/11	%100	%50	%90	%40	%70
14/IV/28	%100	%50	%70	%40	%80
14/IV/29	%100	%50	%80	%40	%90
14/IV/30	%100	%50	%80	%40	%90
14/V/05	%100	%50	%80	%40	%90
14/V/06	%100	%50	%90	%40	%90
14/V/07	%100	%50	%90	%40	%90
14/V/08	%100	%50	%80	%40	%90
14/V/09	%100	%50	%80	%40	%90



2. ERANSKINA: Astearte-Ostiral araberako balioak ehunekoetan.

2.1. Astearteak.

	<i>Bakarrik janzten animatzen da?</i>	<i>Botoiak lotzeko laguntza eskatzen du?</i>	<i>Botoiak lotzen animatzen da?</i>	<i>Gai da botoiak lotzeko?</i>	<i>Adurretakoa bere kabuz jantzeko gai da?</i>
<b>14/III/25</b>	%87,5	%75	%87,5	%25	%62,5
<b>14/IV/01</b>	%100	%55,55	%77,77	%44,44	%77,77
<b>14/IV/08</b>	%100	%50	%90	%40	%80
<b>14/IV/29</b>	%100	%50	%80	%40	%90
<b>14/V/06</b>	%100	%50	%90	%40	%90

2.2. Ostiralak.

	<i>Bakarrik janzten animatzen da?</i>	<i>Botoiak lotzeko laguntza eskatzen du?</i>	<i>Botoiak lotzen animatzen da?</i>	<i>Gai da botoiak lotzeko?</i>	<i>Adurretakoa bere kabuz jantzeko gai da?</i>
<b>14/III/21</b>	%88,88	%66,66	%55,55	%33,33	%66,66
<b>14/III/28</b>	%100	%88,88	%88,88	%33,33	%55,55
<b>14/IV/04</b>	%100	%50	%70	%40	%60
<b>14/IV/11</b>	%100	%50	%90	%40	%70
<b>14/V/09</b>	%100	%50	%80	%40	%90

3. ERANSKINA: Jaiotza hilabetearen arabera balioak ehunekoetan.

3.1. 1.go seihilekoa.

	<i>Bakarrik janzten animatzen da?</i>	<i>Botoiak lotzeko laguntza eskatzen du?</i>	<i>Botoiak lotzen animatzen da?</i>	<i>Gai da botoiak lotzeko?</i>	<i>Adurretakoa bere kabuz jantzeko gai da?</i>
<b>Osotara</b>	%100	%50,32	%77,56	%51,60	%86,53

3.2. 2. seihilekoa.

	<i>Bakarrik janzten animatzen da?</i>	<i>Botoiak lotzeko laguntza eskatzen du?</i>	<i>Botoiak lotzen animatzen da?</i>	<i>Gai da botoiak lotzeko?</i>	<i>Adurretakoa bere kabuz jantzeko gai da?</i>
<b>Osotara</b>	%95,76	%71,92	%85,38	%30,51	%76,41

#### 4. ERANSKINA: Neska-mutil garapenaren arabeko balioak ehunekoetan.

##### 4.1. Neskak.

	<i>Bakarrik janzten animatzen da?</i>	<i>Botoiak lotzeko laguntza eskatzen du?</i>	<i>Botoiak lotzen animatzen da?</i>	<i>Gai da botoiak lotzeko?</i>	<i>Adurretakoa bere kabuz jantzeko gai da?</i>
<b>Osotara</b>	%100	%55	%95	%52	%83

##### 4.2. Mutilak.

	<i>Bakarrik janzten animatzen da?</i>	<i>Botoiak lotzeko laguntza eskatzen du?</i>	<i>Botoiak lotzen animatzen da?</i>	<i>Gai da botoiak lotzeko?</i>	<i>Adurretakoa bere kabuz jantzeko gai da?</i>
<b>Osotara</b>	%72,93	%40,13	%69,33	%38	%59,6

5. ERANSKINA: Ikerketaren 1.go, 3. eta 6. asteetako garapenaren arabera balioak ehunekoetan.

5.1. 1.go astea.

	<i>Bakarrik jantzen animatzen da?</i>	<i>Botoiak lotzeko laguntza eskatzen du?</i>	<i>Botoiak lotzen animatzen da?</i>	<i>Gai da botoiak lotzeko?</i>	<i>Adurretakoa bere kabuz jantzeko gai da?</i>
<b>Osotara</b>	%88,88	%62,96	%44,44	%33,33	%48,14

5.2. 3. astea.

	<i>Bakarrik jantzen animatzen da?</i>	<i>Botoiak lotzeko laguntza eskatzen du?</i>	<i>Botoiak lotzen animatzen da?</i>	<i>Gai da botoiak lotzeko?</i>	<i>Adurretakoa bere kabuz jantzeko gai da?</i>
<b>Osotara</b>	%97,5	%75	%79,72	%33,88	%68,05

5.3. 6. astea.

	<i>Bakarrik jantzen animatzen da?</i>	<i>Botoiak lotzeko laguntza eskatzen du?</i>	<i>Botoiak lotzen animatzen da?</i>	<i>Gai da botoiak lotzeko?</i>	<i>Adurretakoa bere kabuz jantzeko gai da?</i>
<b>Osotara</b>	%100	%52,22	%90	%41,77	%79,55